



# ETXEKO LEIHOTIK

Iñaki Sanz-Azkue - Eñaut Aiartzaguena



Egin zure marrazkiak!



## ETXEKO LEIHOTIK

“Etxean pasa behar ditu Iratik hamabost egun eta triste dago. Asko gustatu arren, ezingo ditu maite dituen animaliak ikusi eta naturaz gozatu. Egun hauetan, ordea, etxeko leihotik begiratuta deskubrituko ditu naturako sekretu ezberdinak.”

Iñaki Sanz-Azkue biologoak eta Eñaut Aiartzaguena marrazkilariak proiektutxo hau sortu dugu datozen Covid 19 gaitzak eragindako konfinamenduko egunetarako. Iñakiren ipuinek naturari buruzko irakaspenak emango dizkigute eta marrazki bidez haurrekin lantzeko aitzakia bat. Irakurmena landuz naturako sekretuak deskubritzeko aukera paregabea.

Batuko al zarete gurekin naturari leihotik begiratzen?

Ausartu zure marrazkia sortzera!

Haserre zegoen Irati. Haserre eta triste, une berean. Udaberria ate joka zegoen jada, eta mendira joateko irrika zuen. Desiratzen zegoen, baina ez zioten uzten.

- 15 egun etxetik atera gabe egon behar dugu! Zen entzuten zuen bakarra.

Iratik, ordea, animaliak ikustea maite zuen. Landareak usaindu eta loreen koloreekin etxera liluraturik joatea. Horregatik gorroto zuen jasotako agindua.


- Etxeko leihotik ikusiko dugu mundua, Irati. ... errepikatzen zioten lasaitu nahirik.

Irati, alabaina, kopeta belztuta zegoen jada. "Etxeko leihotik zuhaitz zahar bat baino ez da ikusten..." pentsatu zuen bere barnerako.

Hala, etxeakoak isiltzearren, leiho txikira gerturatu eta burua atera zuen. Bat batean, isiltasunaren erdian, sekula entzun gabeko ahots sakon eta goxoa aditu zuen:

- Lasai Irati, hemendik aurrera, neronek kontatuko dizkizut naturaren eguneroko sekretuak...

Iratik begiak zabal-zabal eginda begiratu zuen etxe pareko belardi txikira. Zuhaitza zen hitz egin zuena. Leiho parean zegoen zuhaitz zaharra...



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Horrela, Iratik, egunero-egunero zuhaitz zaharrarekin hitz egitea pentsatu zuen. Nork jakingo zuen ba hark baino gehiago naturaz? Etxeak eraiki aurretik ere han zegoen eta!

- Zuhaitz zaharra!! zuhaitz zaharra!! Kontaidazu sekretu bat!!- esan zion leihotik ahopeka Iratik.

Zuhaitz zaharrak, ordea, ez zuen erantzuten. Isilik zegoen egun hartan, eta Irati, berriz ere triste jarri zen. Aurreko eguneko ahotsa ez ote zen benetakoa? Irudikatu egin ote zuen?

Bere pentsamenduetan barneratua zegoela baina, ezustean, papar gorriko txori txiki bat gerturatu zen etxeko leihora. Txantxangorria zen.


- Egun on, Irati. Zuen leiho pareko zuhaitzak eskatuta nator zugana. Auzo honetan errespetu handia diogu zuhaitz zaharrari, bera baita jakintsuetan jakintsuena. Bera baita, sustraiekin auzoko lurra eusten dituen eta hostoen mugimenduekin eguraldia iragartzen duena.

Irati aho zabalik zegoela ikusita, txantxangorriak jarraitu egin zuen:

- Zuhaitz zaharra gereziondoa da, Irati, eta ikusiko zenuen moduan, dagoeneko loreak botatzen hasia da. Zu etxetik ateratzean fruitu bihurtzen hasiko diren lore ederrak.

Hala, txantxangorriak, eguneko albistea eman, eta alde egin zuen leihotik, airean zegoela kantu eder batekin zera esanez Iratiri:

- Eta adi egon, Irati. Bihar ere izango baituzu naturaren berri!!



Ausartu zure marrazkia sortzera!

3. egunean, Iratik leihoan igaro zituen orduak, zuhaitz zaharrari begira, baina ez zuen bisitarik jaso, ezta ahotsik entzun ere.


- Atzo txantxangorriak adi egoteko esan zidan ba!!! - Pentsatu zuen.

Eguna aurrera zihoan, eta isiltasuna zen nagusi kalean. Gereziondo zaharra han zegoen, lore zuriz apainduta. Iratik lore eder horiek pixkanaka gerezi bihurtuko zirela pentsatu zuen, eta etxetik ateratzean, egunero behatuko zituela. Loreak fruitu bihurtzea naturaren pausu magikoa baita. Ikusi gabe ezin utzi daitekeen altxor txikia.

Behin eguna igarota, ilunabarra ere iritsi zen, eta Iratik oherako bidea hartu zuen etsita. Ez ahotsik, ez bisitarik. Ohean zegoela, baina, ulu bat entzun zuen kanpotik: Uuuuuu, uuuu....

Leihoa ireki, eta bi begi handi ikusi zituen gereziondo zaharraren adarrean igota. Urubia zen!!

- Ongi etorri gaueko mundura, Irati. Urubia naiz, zuen ilunpeko zaindaria. Nik zaintzen ditut lo garaiko orduak, eta miatzen dut gauero gereziondo zaharraren erresuma txiki hau, naturak bizirik jarrai dezan zuen leihoen beste aldean. Adi egoten bazara, etxeko leihotik ikusiko dituzu egunero naturaren sekretu txikiak. Ni, bitartean, kanpandorrean izango naiz gaua noiz iritsiko zain, ondoren bertatik atera eta auzoko kaleetan barrena hegan egiteko.



Ausartu zure marrazkia sortzera!


Eta hala iritsi zen osteguna. Antza, eguzkiak irri egiteko gogoa zuen, eta Iratik ere gauza bera egiten zuen etxeko leihoan. Urubiaren bisitak alaitu zion gaua, eta gaur ere naturaren berri izango zuela jakiteak, bihotza piztu.

Nabaritzen zuen: begiak ere aldatu egin zitzaizkion. Etxetik natura ikusten eta irakurtzen zuen orain: gereziondoa ikusi zuen loretan. Txantxangorria hegan adarrik adar, eta kanpandorrea etxeetako teilatuen gainetik ageri zen. Han behar zuen urubiak. Pozik zegoen, bera etxean izan arren, natura aurrera zihoalako.

Hala zegoela, etxeko hormara bideratu zituen begiak, eta zirrikitu batetik buru txiki eta zapal bat ikusi zuen ateratzen: Horma-sugandila zen.

Txikia bezain azkarra. Azkarra bezain bizia mugimenduetan. Kolore marroi, horixka eta beltzek estaltzen zuten bere gorputza, eta isats luze eta eder batek laguntzen zion orekari eusten.

- Egun on, horma-sugandila. Nolaz hemen? - Galdetu zion Iratik.
- Urteak daramatzat zuen etxeko horman bizitzen, baina begiak ez dituzu prest izan ni ikusteko. Gaur, ordea, adi egon zara. Eguzkiak esnatu nau, eta bere goxotasunak piztu, eta zu ere hala zaude, natura ikusteko begiak jarrita, Irati.
- Bihar ez natzaizu ni etorriko, baina segi leihotik behatzen. Mugimenduak ikusten eta usainak sumatzen. Martxo aurrera doa, eta egun hauetan, ezusteko eder bat baino gehiago izango ditugu...




Heldu zen ostirala, eta beste askok bezala, Iratik ere etxetik atera ezinda jarraitzen zuen. Burua, ordea, kanpoan zuen: etxetik kanpo.

Horma-sugandilak esan bezala, inguruko mugimendu, usain eta soinua aurkitu nahian hasi zen Irati. Hala, ez zitzaion asko kostatu airean mugitzen zen animalia txikia ikustea. Ziztu bizian eta motor txiki baten soinua bailitzan, hegoak dar-dar batean astintzen zihoan: euren etxe inguruan zebilen erlea, gereziendoaren lorera bidean. Lorea gerezi bihurtzeko agindua emango zuena zen bera. Magia egiten zuena.

Erleak loreko nektarra, bere elikagaia, jan eta etxeke leihora etorri zen.

- Egun on, Irati. Herri inguruko mendietatik nator. Berri ederrak ditut!! Eta gereziendo zaharrak zuri ere esateko eskatu dit: jakin ezazu, baserri inguruetako zelaiak hasi direla pixkanaka loratzen, eta berde kolorekoa zena, gorri, hori eta urdin kolorez hasi dela janzten.
- Ze pena, eta ni etxean sartuta...
- Lasai egon, Irati. Egun gutxi barru, gereziendo zaharraren azpiko belarra ere hazten hasiko da. Lorezainak etxean dira asko, eta landareak hazten joango dira, eta loreak ateratzen!
- Bai, erle! Eta loreekin batera etorriko dira zuen lagun zomorroak, eta zomorroen atzetik... hegaziak!
- Naturak ez du sekula lo egiten, Irati, baina pixkanaka, hemendik aurrera gero eta gehiago izango gara zure etxe inguruan! Ireki ondo begiak eta alaitu arima. Egun ederrak dituzu aurretik eta!!

Ausartu zure marrazkia sortzera!



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Larunbat goiza zen, eta ohean zegoen Irati. Aurreko egunetan ezagututako landare eta animalia guztiak marraztu eta bakoitzari buruzko aipamen txikiak idazten aritu zen aste osoan zehar bere koaderno sekretuan. Han zituen jarriak urubiaren bizilekua, erleak loreak fruitu bihurtzeko pausuak, txantxangorriaren hegan egiteko modua. Naturaren altxor txikiak marraztu zituen bertan. Nekatua zegoen. Hori zela eta, egun hartan ederki egin zuen lo.


Ohean zegoela, ordea, txistu fin eta goxo batek esnatu zuen. Leihoko kristalaren beste aldean ikusten zuen irudia. Txantxangorria baino handiagoa zen hegazti bat ari zen kantuan: txor-txor, gelditu gabe.

“Hau bai esnatzeko modu ederra!!!”, pentsatu zuen Iratik.

Leihoa irekitzera joan zenean, gorputz beltz eta moko laranjadun zozoak eman zion egun ona.

- Egun on, Irati. Zozo arra naiz. Egunero-egunero zuen teilatutik kantuan izaten den hegaztia.
- Egunero? Erantzun zion Iratik. Ez zaitut eta sekula sumatu.
- Belarriak ere prest izan behar dira natura entzuteko, Irati, esan zion zozoak. Kumeak izateko garaian gara zozoak, eta kantuan aritzen gara goizero, gure kantua nork entzungo!

Hala, zozoaren kantu ederra belarrietan gorde, eta agur esan zion Iratik. Ondoren, gereziandora begiratu eta keinu egin zion begiarekin zuhaitz zaharrari. Ez zuen sekula pentsatuko bere etxe inguruan horrenbeste natura zegoenik. Herriak ere animaliaz eta landarez beteak daude!!!





Ausartu zure marrazkia sortzera!


Aste bete zeraman Iratik etxetik irten gabe. Onartu beharra zuen: Naturak une zoragarriak ematen zizkion, baina dena ez zen poza eta alaitasuna. Luze egiten zitzaizkion itxaronaldiak. Luze, gereziondoak bidalitako berriemaileak noiz etorriko pasatzen zituen orduak. Jakitun zen, ordea, bere lagunak ere hala zeudela. Aurre egin behar zion asperdurari!!

“Eta itxaron partez, nik bilatuko banitu animaliak?“, pentsatu zuen. “Horretarako tresna egokiak behar ditut!... ea zer dugun etxean!!!”

Asko luzatu gabe, bilaketari ekin zion, eta plastikozko kaxa txiki bat hartu zuen sukaldeko armairutik, bai eta mendirako gordeta zituzten prismatiko zaharrak ere. Animalien gida bat bazuten etxean, aspaldian erabiltzen ez zutena, eta hura ere aurkitu zuen, txikitan oparitu zioten lupatxoarekin batera jartzeko. Hala, leiho ondoko mahai gainean jarri zituen guztiak. Iratik animalien behatokia sortu zuen leiho ondoan. Irati ikertzailearen laborategia martxan zegoen!!!

Minutuak aritu zen etxean bueltaka. Sukaldea lehenik, komuna ondoren, logela beranduago... baina ezer ere ez zuen aurkitu. Egongelan, ordea... hormak elkartzen ziren tokian bazen sare bat... sare txiki bat. Eta Iratik itxarotea pentsatu zuen, harik eta armiarma agertu zen arte sarean!

Korrika batean, harrapatu eta lupan jarri zuen. Eta orduan, mundu berri bat ireki zitzaion begien aurrean. “Ikusezinen mundua” deituko zion Iratik. Lupan ikusten zuena koadernoan marrazten eta idazten hasi zen. Aste ederra zuen aurretik bere laborategi txikian!!!



Ausartu zure marrazkia sortzera!


"Ikusezinen mundukoak" ziren armiarmak Iratirentzat. Etxe inguruan zeuden, kalean, hormetan... baina gizakiak ez zituen ikusi ere egiten. Inguruan ditugun milaka zomorro txikien modura.

Iratik lupan jarrita ikusi zuen armiarma. Armiarma puska!!!, pentsatu zuen luparen handitasunean. Hanka iletsuak zituen hark. Armiarma guztiek bezala, zortzi hanka. Beti zortzi. Eta animalien liburuan begiratu zuen ziurtatzeko. Hala zen. Araknidoak deitzen omen diete...

Ondoren etorri ziren leihoko loreen artean aurkituriko inurri txikiak. Eta sekula ikusi gabeko zomorroak. Etxeko zirrikitu ezkutuenetan zeudenak. Eta euliak!! Sukaldeko fruta artean azalduko bat. Txikia bera, baina luparen erdian ederki ikusten zena. Hego txiki eta biziekin. Nahiko lan izan zuen Iratik hura ikusteko!!! Liburuak, alabaina, euliaren begiei buruz ere hitz egiten zuen. Ehunka begi txikiz osaturikoak omen ziren! Nola ba!! Ehunka begi, begi bakarrean?

Iratik, ordea, leihotik begira jarraitzen zuen bada ez bada ere. Baina liburuak ere laguntzen zion. Sekretu asko kontatzen zituen, eta horietako batzuk etxean ez, baina bai berak herrian bertan ikusitakoak. Barraskiloak azaltzen ziren, esaterako. Parkean hartzen zituenak bezalakoak. "Erradula" omen zuten ahoan. Etxean galdetu zuen, baina ez zekiten zer zen hori... Eta liburuan irakurri zuen: hortzez osaturiko mihia da!!! Janaria xehatzeko erabiltzen dutena!!

Luparekin txoratuta, Iratik gogoratu zuen tresna bat oraindik probatu gabea zuela... prismatikoak!!!



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Ez zuen asko itxaron, beraz. Liburuak esandakoari kasu egin eta, hegaztiak ikusteko onenak goizeko lehenengo orduak direla jakin zuen. Jakin, eta frogatu. Iratik, leihoa ireki gabe, prismetikoak hartu eta gereziondora zuzendu zuen begirada, kristalaren beste aldetik.


- Ualaaaaa!!! Baina zer da hau?

Prismetikoek urruti zegoena gerturatzeko balio zuten. Begientzat txikia zena handi bihurtzen zuten. Eta horrela, zuhaitz zaharraren enborraren xehetasun guztiak ikus zitezkeen. Baita arrakalarik txikiak ere! Eta adarrak, loreak, eta beraz... adarren artean mugituko ziren hegaztiak ikusteko aukera paregabea izango zuen!

Bitartean, ordea, prismetikoekin gereziondoaren azpiko zelaia begiratzen hasi zen. Egia zen. Denok etxean ginenetik ez zen lorazainik pasa, eta belarra hazten ari zen. Kolore ezberdinak ere hartu zituen dagoeneko. Hainbat lorek osaturiko alfonbra ederra ari zen bihurtzen. Baina, zein lore ote ziren?

Ezin zituen bertatik bertara ikusi, baina bai kontatu: Oraingoaz, 9 gorri, 7 hori eta 4 urdin. Naturako irakasleak esaten zien zelaietako belarra moztu gabe utziz gero, bere kasa joaten zela hazten, eta astero-astero lore ezberdinak ikus zitezkeela loratzen.

Iratik frogatuta bera egitea pentsatu zuen. Egunero prismetikoekin kontatuko zituen lorategiko loreak, eta horrela esperimendu txiki bat egingo zuen: etxe inguruko paisaia nola aldatzen zen aztertzen zuen esperimendua. Ikertzailea izatea zoragarria zen!!!!



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Otso panpinari helduta esnatu zen egun hartan Irati.

- Otso, entzun, entzun zozoa kantuan!! Tristeia da etxean egon beharra, baina kaleko isiltasunean txoriak kantuan aditzea ederra da. Ez duzu uste?

Otsok, ordea, zurrunga egiten jarraitzen zuen... seko lo zegoen!!

Hala, Iratik koaderno txikia hartu, eta eguna martxan jartzea pentsatu zuen. Leihora joan zen prismatikoekin zelaiko loreak kontatzera. Goiz zen oraindik, baina egun hartan zerbait berezia nabari zen. Agerikoa zen udaberrian zirela dagoeneko.


Ez zuen asko behar izan zer gertatzen ari zen konturatzeko. Leihoa ireki, eta ziztu bizian zozoa hurbildu zitzaion:

- Irati, Irati! Begiratu gereziondo azpiko lore artera!

Iratik prismatikoak jarri eta txori talde txiki bat ikusi zuen lorez lore: tip-tip-tip eginaz. Burua gorria, beltza eta zuria zuten. Hegoetan, ordea, hori kolorea, gorputz arre eta beltzarekin nahastua. Zoragarriak ziren!!!

- Karnabak, Irati, karnabak! Urteak dira gereziondora etortzen ez zirela, baina lorezaina ez dagoenetik landareak hazi egin dira, eta loreak ugaritu; eta karnabak haziak jatera etorri dira!!!

Eta horien atzetik azaldu ziren kaskabeltzak, adarrez adar mugitzen. Eta txolarreak, zelai alboko bidean. Buztangorriak, teilatuko habiatik ateratzen. Eta orduan, orduan bai. Iratik gereziondo zaharraren enborra aldatzen hasi zela ikusi zuen. Irribarrez ari zen. Pozez irri egiten...



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Pozik zegoen gereziondo zaharra. Ez zen gutxiagorako. Urteak ziren karnabak bere babesera joaten ez zirela. Garai batean bai. Etxerik ez zenean inguruan, asko ziren bera bisitatzera joaten ziren txoriak. Aspaldian, ordea, aldatua zegoen dena. Faltan botatzen zituen lagunak gereziondo zaharrak.

Egun hartan ere han zebiltzan guztiak hegan. Txolarre arrak ere hasiak ziren lurreko dantzak egiten, ipurdia jaitsi eta isatsa tente jarritz. Udaberria bete-betean sartua zen herrian.

Etxeko horman gora hasiak ziren landareak igotzen. Neguan hostoak galdu bazituzten ere, landare igokariak paretan gora ikusten ziren berriz ere, eta iratzeak bizilagunaren balkoipean ikus zitezkeen zintzilik.


Egun hartako guztia ikusia zuela uste zuenean, baina, Iratik sekulako ustekabea hartu zuen. Animalia txiki eta marroi bat ari zen saltoka etxe parean... baina, zer zen hori? Apo bat herri erdian??

- Egun on, apoa!! Zer egiten duzu zuk herri erdian?

Apoak begi gorri eta handiekin begiratu zion Iratiri, eta esan zion:

- Apoen ugal garaia da, Irati. Etxeak egin aurretik, zuhaitz aurrean erreka zegoen, eta urfero etortzen ginen arrautzak jartzera hona. Ordutik ez nintzen ausartu hemendik pasatzera. Denak etxean zaudetela ikusita, ordea, berriz etortzea erabaki dut.

Apoak erakutsi zion Iratiri mundua beti ez zela izan berak ezagutu zuen modukoa. Etorkizunean ere aldatzen joango zen. Onerako, espero zuen!!



Bitartean, Iratiren laborategiak martxan jarraitzen zuen. Koadernoan apuntatzen zituen ikusitako guztiak. Sortzen zitzaizkion zalantzak liburuetan begiratu, eta prismatikoarekin eta luparekin hartzen zien neurria inguruko animaliei.

Adituetan adituena zen ordurako Irati. Etxekoak ere harrituak zituen. Xapoketan karta-jokoan jolasten zutenean, inguruko animalia guztiak ezagutzen zituen. Handitan biologoa izango zela esaten zuen!

Aitzitik, kartekin jolasten zuenean, beti sortzen zitzaion duda: hegaztiak baziren inguruan, baita narrastia ere sugandila itxuran. Anfibia zen ikusi zuen apoa, baina... ugaztunik? Gizakiak, txakurrak eta katuak kenduta, ugaztunik ez al zen ba etxe inguruan?


Ilunabarraren lasaitasunean, zeruari begira ari zela etorri zitzaion erantzuna Iratiri. Animalia txiki hegalaria pasa zen leiho paretik abiada bizian. Etxe aurreko kale-argiaren inguruan zebilen bueltaka. Gora eta behera, inguratzen ziren zomorro guztiak ahoratu nahian. Saguzarra zen.

- Saguzarra, saguzarra. Nondik atera zara zu?
- Ni? Zure teilatupean bizi naiz! Urteak daramatzat bertan!
- Benetan? Eta ez zara zu izango ba bilatzen nuen ugaztuna?
- Bai horixe, Irati! Saguzarrak, hegoak izan arren, ugaztunak gara. Noizean behin menditik herrira jaisten diren azkonarrak, edota basurde txoak bezala. Guk jaten ditugu herriko zomorro hegalaria, eta guri esker dago euli gutxiago zuen etxean. Gizakioi, beraz, saguzarrak zaintzea komeni zaizue!!

Eta hala, Iratik aspaldiko lorik ederrena egin zuen. Loaldi magikoa...

Iñaki Sanz-Azkue - Eñaut Aiertzagüena

Ausartu zure marrazkia sortzera!



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Iratik lepoko lumetatik eusten zuen fuerte, sendo. Otso eta bera hegazti harrapari handi baten gainean ziren hegan, sai zuriaren gainean. Airean zihoazen, Euskal Herriko txoko ezberdinak bisitatuz.

Paisaia zoragarria zen. Mendiak, basoak, baserri eremuak, zelaiak eta itsaso zabala. Itsaslabar malkartsuak eta desertua. Bardeetako desertua. Dena kilometro gutxian. Irati eta otso ahozabalik ziren.


Gizakiak mugak itxi zituen honetan, naturak ez zuen mugarik. Animaliek alde batetik bestera zeharkatzen zituzten lurak egunero. Sai zuria migratzailea zen. Sahara hegoaldeko, Afrikatik etorri berria zen Euskal Herrira. Bereak ere baziren lurretara.

Iratik ez zuen sinesten gertatzen ari zena. Sai zuria zoragarria zen. Lumaje ederrekoa. Zuria ia bere osotasunean, lumarik gabeko aurpegi horiarekin. Hego ertzak beltzak zituen, hegoen azpialdeko zati bat bezalaxe. Eta handia zen. Oso handia.

Etxeetan sartuak zeuden pertsonak harriduraz begiratzen zieten. Leihoetatik, lorategietatik... Guztiek zerura begiratzen zuten. Sai Zurik, Iratik eta Otsok egiten zuten hegaldiarekin gozatzen ari ziren denak.

Sai Zurik negua Afrikan igaro zuela esan zien, eta Euskal Herriko harkaitzetara etorri zela ugaltzera. Bidean enarak topatu omen zituen. Badatoz horiek ere!. Gauza asko kontatu zituen Sai Zurik hegaldian...

Bat batean, hegaldia bukatu egin zen, eta ohean esnatu ziren Otso eta Irati. Ametsa izan al da dena? pentsatu zuen Iratik. Jaikitzean, baina, eskuek ezustekoa eman zioten: bi luma zuri zituen hatz artean...



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Egia esan, azken egunetan Iratik ez zekien bizitzen ari zena errealitatea ala ametsa zen. Bi aste ziren jada etxetik atera gabe, eta hori ere errealitatetik urrun zegoela uste zuen Iratik. Finean, nork erabakitzen zuen zer zen ametsa eta zer errealitatea? Bizitza, bizitza zen, eta kitto.

Leihora atera, eta gereziondo zaharra indartua zegoela iruditu zitzaion. Hostoak mundura atera nahian, gerezi-loreak bizi-bizi eta azpialdeko zelaia landare koloredunez jantzia. Tximeletak airean dantzan, txoriak kantuan eta gaueko animaliak noiz ilunduko zain, aspaldian galdutako lurrak berreskuratzeko asmoz.


Natura indarrean zegoen azken aldian.

Sai Zurirekin izandako abenturak buruan jarraitzen zuen oraindik. Bi luma hatzetan... nola zen posible? Benetan sinestezina zirudien. Orduan, baina, arreta deitu zion zeruan hegan zebilen txori txiki batek. Airean dantzan zebilen, zeruko zomorro txikiak harrapatu nahian. Begiradarekin jarraitu zuen Iratik, eta prismatikoekin ondoren. Hegaztiak hegan jarraitu zuen, bere gorputza abiadan kiribiltzen. Bistatik galdu gabe, ordea, Iratik txoria elektrizitate kablearen gainean pausatu zela ikusi zuen.

Ez zegoen bakarrik. Bere aldamenean hegazti gehiago zituen, antzekoak denak: gain urdinxka, aurpegi gorritzta eta azpialde argia. Enarak, enarak!!! - egin zuen oihu Iratik. Etorri dira Afrikatik. Afrika urrunetik!

Sai Zurik esan bezala, iritsi ziren Euskal Herrira enarak. Udaberriaren etorrera iragartzen zuten txori maitatuak.

- Orduan, Sai zurirekin gertaturikoa... errealitatea zen?





Ausartu zure marrazkia sortzera!

- Hamabost egun igaro behar ditugu etxean, Irati. – esan zioten aurreneko egunean, baina ixialdia luzatu egin zuten.

Orain, leihotik begiratzean, bestelako begiekin ikusten zuen zuhaitz zaharra. Bazekien noiz zegoen triste, noiz alai. Gogorrak izan ziren aurreko egunak, baina natura indartsu ikusteak ere alaitzen zuen Irati.

Han ziren guztiak: txantxangorria adar txikian, txolarrea bidetxoan eta zozoa kantari teilatuan. Enarak pozez airean, eta kaskabeltzak adarrez adar. Erleak zalaparta ederrean, lorez lore, eta karnabak zelaiko landare artean, hegoek lagunduriko dantza ederrean. Apoa gereziondoaren sustrai arteko zuloan, begi gorriekin leihora begira, eta urubia kanpandorrean. Sugandila zirrikitan, eta Irati... Irati leihoan.

- Zenbat denbora igaro beharko ote dugu etxean, zuhaitz zaharra? esan zuen Iratik ahopeka...

Ez zuen erantzunik espero, aurreneko egunetik ez baitzuen zuhaitz zaharraren ahotsik entzun. Isiltasun txiki baten ostean, baina, adar soinu bat entzun zen. Gereziondo zaharraren adarretako bat hurbiltzen hasi zen, eta animalia guztiak leihora gerturatzen. Orduan, ahots goxo eta sakon bat entzun zen. Zuhaitz zaharra ari zen hizketan:

- Irati, zure bizitzako ametsa hasi baino ez da egin. Alaitu bihotza, oraindik asko dugu egiteko eta!

Hala, Iratik begiak itxi, eta Sai zuriren gainean zegoela irudikatu zuen... errealitatea eta ametsa nahasten diren mundu zoragarrian.

